

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4901

EBAZPENA, 2019ko urriaren 10ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita toki-erakundeek, Gazte Enplegurako 2014-2020 Programa Operatiboaren esparruan, gazteak kontratatzeko 2018rako laguntzen deialdiaren babesean emandako dirulaguntzen onuradunen zerrenda. Laguntza horien deialdia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak onartu zuen, 2018ko ekainaren 27an egindako bileran.

Dirulaguntza publikoak emateko jarraitu beharreko publikotasun-printzipioa betetzeko, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko 49.2 artikulua ezarritakoa kontuan hartuta, laguntzak emateko ebazpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar dira.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea aipatutako dirulaguntzen onuradun izan diren pertsonen zerrenda toki-erakundeek, Gazte Enplegurako 2014-2020 Programa Operatiboaren esparruan, gazteak kontratatzeko 2018rako laguntzen deialdiaren babesean emandako dirulaguntzak. Dirulaguntza horien deialdia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak onartu zuen 2018ko ekainaren 27an egindako bileran (erabaki hori 2018ko uztailaren 5eko EHAAn argitaratu zen, 129. zenbakian). Onuradunen zerrendarekin batera, onuradun bakoitzari emandako dirulaguntzaren zenbatekoa adierazten da, ebazpen honen eranskinetan azaltzen den bezala.

Bigarrena.– Berariaz aipatzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Europako Gizarte Funtzaren kofinantzazioa izan dela, Gazte Enplegurako 2014-2020 Programa Operatiboaren eta EAEko 2014-2020 EGIF Programa Operatiboaren esparruan.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 10a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JUAN JOSE BORJA BELANDIA FRADEJAS.

2019ko urriaren 23a, asteazkena

ERANSKINA

Espedientea	Erakunde onuradunak	Emandako dirulaguntza
R/18-GEL-01A	Lapuebla Labarkako Udala	3.575,00 €
R/18-GEL-02A	Aguraingo Udala	4.180,00 €
R/18-GEL-03A	Lantziegoko Udala	2.388,12 €
R/18-GEL-04A	Oiongo Udala	9.750,00 €
R/18-GEL-05A	Laudioko Udala	3.250,00 €
R/18-GEL-06A	Ziekoko Udala	258,63 €
R/18-GEL-07A	Bastidako Udala	10.725,00 €
R/18-GEL-08A	Amurrioko Udala	7.561,37 €
R/18-GEL-09A	Erribera Beitiko Udala	17.875,00 €
R/18-GEL-10A	Vitoria-Gasteizko Udala	6.775,68 €
R/18-GEL-01G	Alegiako Udala	3.250,00 €
R/18-GEL-02G	Arrasateko Udala	3.749,85 €
R/18-GEL-03G	Izurako Udala	3.080,00 €
R/18-GEL-04G	Eibarko Udala	2.800,00 €
R/18-GEL-05G	Irungo Udala	2.671,64 €
R/18-GEL-06G	Legazpiko Udala	3.575,00 €
R/18-GEL-07G	Errenteriako Udala	2.660,00 €
R/18-GEL-08G	Zumarragako Udala	4.865,48 €
R/18-GEL-09G	Donostiako Sustapena S.A.	5.731,00 €
R/18-GEL-10G	Oarsoaldea S.A.	4.180,00 €
R/18-GEL-01B	Balmasedako Udala	6.004,38 €
R/18-GEL-02B	Meatzaldeko Behargintza S.L.	4.180,00 €
R/18-GEL-03B	Meatzaldeko Behargintza S.L.	854,47 €
R/18-GEL-04B	Abanto-Zierbena Zerbitzuak S.L.	5.600,00 €
R/18-GEL-05B	Zamudioko Udala	2.800,00 €
R/18-GEL-06B	Etxebarriko Udala	2.569,84 €
R/18-GEL-07B	Berrizko Udala	3.336,55 €
R/18-GEL-08B	Güeñesko Udala	3.250,00 €
R/18-GEL-09B	Inguralde	2.681,25 €
R/18-GEL-10B	Berriatuko Udala	2.696,43 €
R/18-GEL-11B	Sestaoko Udala	7.600,00 €
R/18-GEL-12B	Erandioko Udala	2.926,00 €
R/18-GEL-13B	Bilbao Ekintza Epel	4.180,00 €
R/18-GEL-14B	Forlan	4.500,00 €
R/18-GEL-15B	Portugaleteko Udala	10.395,00 €
R/18-GEL-16B	Santurtziko Udala	3.250,00 €
R/18-GEL-17B	Zallako Udala	4.190,28 €
	Guztira	4.952.950,00 €